

**ALKATETZA
DEKRETUA**

2026 000001850

Espediente-zenbakia: 2026/IDA_DEK0336

**2026. URTEKO ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIENTAKO LIBURUKO
ARTIKULUAK IDAZTEKO ETA ARGITARATZEKO DEIALDI PUBLIKOAREN
OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA ZABALTZEA.****Xedea**

2026 urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuko artikulua idazteko eta argitaratzeko deialdi publikoaren oinarriak onartzea eta deialdia zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: urtero, Bermeoko jaietako liburuan artikulua argitaratzen dira.

Bigarrena: 2015 urtean, lehenengo aldiz, Euskera Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Sailak lankidetzan, oinarriak finkatu eta deialdi publikoa egitea proposatu zuten.

Hirugarrena: Euskera Sailak, Berdintasun Sailak eta Kultura eta Hezkuntza Sailak adostuta oinarriak gaurkotu egin dira.

Argudioak

Lehenengoa: oinarrietan, jaietako liburuko artikuluei buruzko zehaztasun guztiak adierazten dira.

Bigarrena: Toki Erregimena arautzen duen 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikulua arabera, oinarriak onartzeko eta deialdia zabaltzeko eskumena alkateak dauka.

Erabakia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabaki dut:

LEHENENGOA: 2026. urteko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuan artikulua idazteko eta argitaratzeko oinarriak onartzea.



BIGARRENA: 2026ko Andra Mari eta Santa Eufemia jaietako liburuko artikuluak idazteko eta argitaratzeko deialdi publikoa zabaltzea onartzea, 2026ko ekainaren 26ra arte.

HIRUGARRENA: Berrikuntza Sailari udaleko web orrian dagokion iragarkia argitaratzeko agindua ematea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Euskera eta Berdintasun sailei jakinaraztea.

BOSGARRENA: Hurrengo Tokiko Gobernu Batzarrean eta Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Oharra: sinadurea eta data orri-oinan .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA0015B62500Y3D9K2B0H5F1

Sinadurea eta data

NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 27/03/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU
ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 27/03/2026 14:43:26

EXPEDIENTE ::
2026IDA_DEK0336

Fecha: 26/03/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:

Erregistro nagusia

